

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LAUDIOKO UDALA

Ebazpen laburpena, Laudioko Udaleko alkate-udalburuaren 2019ko abuztuaren 26ko 2025 dekretuarena, zeinaren bidez onartu den Laudion autoenplegua sustatzeko eta enpresak sortzea pizteko 2019ko diru-laguntzen deialdia

BDNS (Identif.): 471481

Diru-laguntzen azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorreko 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan aurreikusitakoarekin bat, deialdiaren laburpena argitara ematen da. Horren testu osoa kontsulta daiteke Diru-laguntzen Datu Base Nazionalen <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>.

Lehenengoa. Xedea:

Laudion auto enplegua sustatzeko eta enpresak sortzea pizteko diru-laguntzen oinarri arautzaileek duten xedea da enpresa bat, sortzea, martxan eta funtzionamenduan jartzea, zeinahi izanik ere horien izaera eta forma juridikoa.

Bigarrena. Onuradunak:

Enpresek eskuratu ahalko dituzte atal honetan ezarritako onurak, zeinahi izanik ere horien izaera juridikoa, banakako enpresaburuak eta profesionalak barne.

Hirugarrena. Laudion autoenplegua sustatzeko eta enpresak sortzea pizteko 2019ko diru-laguntzen emakidaren oinarri arautzaileak onartu egin dira 2019ko ekainaren 17ko 1.500 zenbakia duen dekretuz eta argitaratu egin dira 2019ko ekainaren 28ko 74 zenbakia duen ALHAOn.

Laugarrena. Zenbatekoa:

Ekonomi-zuzkidura bada 20.000 euro eta gastua babesten duen aurrekontuko diru saila bada Laudio Udalaren Tokiko Garapen Agentziaren 2019ra luzatutako 2018ko udal aurrekontuko "Ekintzaileentzako diru-laguntzak" izeneko 1000-4331-481.00 partida.

Bosgarrena. Epea:

Eskaerak aurkezteko epea hasiko oinarriak ALHAOn argitaratzen diren biharamunetik, eta zabalik egongo da hurrengo 30 baliodun egunetan zehar.

Laudio, 2019ko abuztuaren 27a

Alkate-udalburua

ANDER AÑIBARRO MAESTRE